

ADIERAZPENA, GIZA ESKUBIDEEN ALDARRIKAPEN UNIBERTSALAREN 60.
URTEURRENA DELA ETA

Espainiako *Defensor del Pueblo* Enrique Múgicak; Andaluziako *Defensor del Pueblo* José Chamizok; Aragoiko *Justicia* Fernando García; Asturiasko *Procuradora General* M^a Antonia Fernándezek; Kanarietako *Diputado del Común* Manuel Alcaidek; Gaztela-Mantxako *Defensor del Pueblo* José Manuel Martíñezek; Gaztela eta Leongo *Procurador del Común* Javier Amoedok; Kataluniako *Síndic de Greuges* Rafael Ribók; Valentziako Erkidegoko *Síndic de Greuges* Carlos Morenillak; Galiziako *Valedor do Pobo* Benigno Lópezek; Errioxako *Defensora del Pueblo* María Bueyo Díezek; Nafarroako Ararteko Francisco Javier Enérizek; Euskal Autonomia Erkidegoko Ararteko Íñigo Lamarcak eta Murtziako *Defensor del Pueblo* José Pablo Ruiz Abellánek ondorengo adierazpen bateratua egiten dute, Nazio Batuetako Batzar Nagusiek 1948ko abenduaren 10ean Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala eman zutenetik 60. urteurrena betetzen dela eta.

Giza eskubideak errespetatzea eta eskubideok bermatu eta babesteko erakundeak eta mekanismoak izatea dira egungo demokrazien oinarri nagusiak. Ildo horretan, Espainian, pertsonen eskubideak bermatzeko hainbat erakundek, zentralak izan nahiz autonomia erkidegoetakoak izan, zeregin hori dugu geure gain, Administrazioen jarduerak eta politika publikoak gainbegiratu behar ditugularik, ordenamendu juridikoan aitortutako eskubideak errespetatu daitezten, eta ahalik eta gehien gara daitezten. Erakundeok, bada, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren alde sendo lan egiten jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu, herritarrek ahalik eta ongizate mailarik altuena izan dezaten lortzeko.

Adierazpen bateratu honen bitartez, gure lanari loturiko gaien artean, gure ustez nabarmendu beharreko batzuk ezagutarazi nahi ditugu, aitortutako eskubideei egiazko edukiak emango dizkieten politika publikoak bultzatu eta sustatzeko bidea eman diezagun Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 60. urteurrenaren ospakizunak. Pertsonen duintasuna, askatasuna, justizia eta

berdintasuna dira, beren zentzu osoan, pertsonen eskubideek euskarritzat dituzten oinarrizko balioak, eta, horregatik, euskarri ez ezik, bermea ere badira. Horrenbestez, eskubide horiek babestea helburu duten mekanismo eta baliabide instituzionalek politika publiko sektorialen eraginkortasunaz ere arduratu behar dute.

Indarkeria terrorista –ETArena, Al Kaedarena zein beste edozein jatorri duena izan–, fanatismoan, gorrotoan eta totalitarismoan oinarritua, herritarren oinarrizko eskubideei eragiten dien minbizi bat da, dudarik gabe. Etengabe, koordinazioz eta irmo jardunez desagerrarazi eta deslegitimatu behar dugu gaitz hori. Ildo horretan, terrorismoaren biktimei dagokienez, behar den garaian eta eraginkortasunez islatu behar dira legeetan, politika publikoetan eta gizartearen aitorpenean egia, justizia eta ordaina.

Egungo egoera ekonomikoan, agerian utzi nahi dugu oso kezkatuta gaudela lan baldintzak nahiz bizi baldintzak pixkanaka okerrera egiten ari direlako (lan istripuak gero eta gehiago izatea barne), herritar eta familia askoren kaltetan, eta langabezia gehitu delako. Horrek, ziur aski ahultasun sozioekonomikoa eta gizarte bazterketa areagotuko ditu, batez ere integratzeko prozesuan zeuden etorkinen artean eta, are modu dramatikoagoan, gure lurraldeetara era irregularrean iristen jarraitzen dutenentzat. Hartara, bizimodu duina, harrera egitea, eta gizarteratzea bermatzeko gizarte laguntzak hobetu behar dira, pobrezia eta bazterketa poltsak, –gero eta nabariagoak, hasteko, kaleetan aurkitzen diren *etxegabeak* direla bide– handiago daitezen ekiditeko; era berean, desberdintasun horiek sortzen dituzten kausei ere aurre egin behar zaie.

Emakumeen aurkako indarkeria matxista errealitate jasanezina da, eta eraginkortasun handiagoz aurre egin behar zaio, egun genero indarkeriaren aurka dagoen legediaren gizarte eta prebentzio alderdiak zabalago eta sakonago garatuz, eta dauden zerbitzu eta baliabideak era egokian koordinatuz.

Era berean, botere publikoek arreta berezia eskaini behar diete haur eta nerabeei, bereziki talde babesgabea izanik. Arlo honetan, hainbat gertaera direla bide gaude kezkatuta: babes baliabideen beharra duten gazteak gehitu izana;

lagundu gabeko atzerriko adingabeei ematen zaien laguntza nahikoa ez izatea; eskola eremuan, familiaren barruan zein aisialdiko guneetan eraso jokabideak areagotu izana, eta nahaste psikikoei eta alkoholaren zein beste droga batzuen kontsumoari loturiko fenomenoak ugaritu izana.

Adinekoren beharrianak nabarmenki hazten ari diren arren, haietan laguntzeko baliabideak ez dira neurri berean gehitzen ari. Nahiz eta norberaren autonomia sustatzeko legea aurrerapena den mendetasunen bat duten pertsonentzako politiketan (adinekoei dagokienez, gehienbat), badira oraindik ere zenbait gabezia lege horren oinarritzko alderdi batzuk garatu eta aplikatzeko garaian —hala nola erabiltzailearen ekarpen ekonomikoa zehaztea— eta, ondorioz, eskumena duten administrazioek beren erantzukizun publikoarekin bat jardun beharko lukete.

Kezka adierazi behar dugu, halaber, buru gaixotasunek gero eta eragin handiagoa dutelako, eta haietaz arduratzeko politikak eta programak nahikoak ez direlako. Norberaren autonomiarako lege horrek ez du behar bezala erantzun halako gaixotasunak dituzten pertsonen nahiz haiek zaintzen dituzten beharrianen aurrean. Sektore horretan, eta, oro har, urritasunen bat duten pertsonen sektorean, gabeziak konpontzeko eta arriskuak prebenitzeko, beharrezkoa da apustu sendoa egin dadin gizarte eta osasun arloko laguntzaren alde, gizarte eta osasun eremuen artean koordinatutako baliabideak abian jarritz.

Bazterketa ororen aurkako borrokan ere bultzada eta tresna berriak behar dira, planteamendu integral, zeharkako eta proaktibo batekin, sexua, arraza, ideologia, erlijioa, elbarritasuna, sexu joera edo beste edozein arrazoi direla bide gertatzen diren bazterkeria kasuei eraginkortasunez aurre egiteaz gain, kontrabaliok desagerrarazteko helburua ezarrita, hau da, sexismoa, arrazismoa, homofobia eta, oro har, pertsonetikiko errespetua zein haien berezko duintasuna zapaltzera daramatzaten mespretxu edo intolerantzia. Horri dagokionez, atzeritar edo etorkinen aurkako jarrera xenofoboek kezkatzen gaituzte, bai eta ijitoen aurkako etsaigo eta bazterkeriazko jokabideek ere.

Herritarren segurtasuna eta pertsonen askatasuna eta osotasuna, bai eta haien ondasunena ere, ahalik eta irmoen babestu behar dituzte botere publikoek. Ildo

horretan, beraz, ahalik eta gehien indartu behar dira delinkuentzia prebenitzeko eta hari aurre egiteko baliabideak, polizia indarrei, zeinek lan goraipagarria egiten baitute, beharrezko baliabideak emanda.

Magistratu, epaile, fiskal eta Justizia Administrazioa osatzen duten guztiek, bestalde, Zuzenbide Estatu demokratiko batean funtsezkoa den zeregina betetzen dute, eta Estatu hori ahulduta geratuko litzateke delako zeregina bere osotasunean gauzatuko ez balitz babes judizial eraginkorra lortzeko, prozesuen arintasunari dagokionez, bereziki. Horregatik, Botere Judizialak eta Justizia Administrazioak beharrezko baliabide pertsonal eta materialak izan behar dituzte, beren zeregina egoki betetzeko, eta egiaztatzeko moduko egoera bat izatetik urrun dago hori gaur egun.

Kartzelen eta adingabe arau-hausleak hartzen dituzten zentroyen baldintzek zehatz-mehatz bete behar dituzte printzipio eta eskubide konstituzionalak. Ez dira inoiz ere bazterrean utzi behar giltzapetuak berriz gizarteratzeko eta hezteko helburuak, pertsona horiek, hain zuzen, gizarte bazterketa larriko egoeretatik datoz eta. Ildo horretan, funtsezko garrantzia du espetxeetako funtzionarioek egiten duten lana; horrenbestez, lan hori indartu behar da baliabide pertsonal eta materialen zein prestakuntzazko baliabideen bidez.

Demokrazia oso batek bereziki zorrotza izan behar du pertsonak askatasunaz gabetzen diren eremuetan, eta ardura bereziz bermatu behar ditu atxilotuen edo kartzelaratuaren eskubideak, bai eta poliziako eta espetxeetako funtzionarioenak ere. Espainiak, 2005eko apirilaren 13an, Tortura eta beste tratu txar edo zigor krudel, gizagabe ala ankerren aurkako Hitzarmenaren Hautazko Protokoloa izenpetu zuen, eta ahalik eta lasterren erabaki behar da protokolo horretan xedatutako mekanismoaren izendapena, bai mekanismo zentralarena bai eskumena duten autonomia erkidegoetako lurralde mekanismo deszentralizatuena; hain zuzen ere, herritarrak defendatzeko erakundeok eginkizun nagusi bat izan beharko dugu delako mekanismoan.

Administrazio ona izateko eskubideak Administrazio publikoen jarduerak zein herritarrekin dituzten harremanak zuzendu behar ditu, eta bereziki informazioa

izateko eta parte hartzeko eskubideei dagokienez. Bestalde, komeni da kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak babesteko eta bermatzeko elementu berriak ezar daitezen, batez ere eguneroko bizitzarako ezinbestekoak diren zerbitzuen eremuan, hala nola energiaren eta telekomunikazioen erabileran, eta inbertsio eta aurrezkien inguruko gaietan.

Ilido berean, elkarbizitzako sistema demokratiko batean nahitaezkoak dira ekonomiaren eta hirigintzaren garapenak iraunkorrak izan daitezen, ingurumena nahiz ondare artistiko-historikoa errespetatu ditzaten, hurrengo belaunaldiak haietatik gozatzea arriskuan jarri edo negatiboki baldintzatu gabe. Sistema horrek, era berean, herritar guztiei Interneteko baliabideak erabiltzeko aukera ematen saiatu behar du, sarea erabiltzeko aukeren arabera eten digitala delakoa sortzea edo zabalagotzea ekiditeko. Halaber, herritarren intimitaterako eskubidea eta haien datu pertsonalen babesa bermatu behar ditu; ingurumenaren kutsadura zein kutsadura akustikoa murrizteko baliabideak jarri behar ditu, eta animalien presentzia eta bizitza era egokian arautu.

Aipatu ditugun eskubideei, besteak beste, eman beharreko babesik handiena osatzeko, Estatu sozialaren oinarri klasikoak diren horiek ere sendo babestu behar dira. Osasunerako eskubideak gora doazen eskarien eta eskura dauden baliabideen arteko desorekaren gorabeherek jasaten ditu, eta behar bezala bermatu behar da espainiar guztientzat, berdintasunean oinarrituta eta eska daitekeen kalitatekin handienarekin.

Hezkuntzarako eskubideak, bestalde, guztientzako hezkuntza egokia, aukera berdintasuna eta beharrezko berezietarako berariazko laguntza bermatu behar ditu. Eskola gure haurrek elkarrekin bizitzen eta giza eskubideak errespetatzen ikasteko gunea izan behar du, eta, era berean, etorkizuneko gizarte dibertsitatean barne-hartzaileagoa, solidarioagoa eta zuzenagoa izateko balioak landu behar ditu.

Gizarte prestazioek, kotizatuak zein kotizatu gabekoak izan, etxebizitza duina izateko eskubideari dagokiona barne, oinarritzat dituzten printzipioekin bat etorri

behar dute, eta haiek eskatzeko aukera nahiz denboran zehar irautea bermatuta izan behar dute.

Eskubideak babestu eta bermatzeko erakunde guztiok, adierazpen hau bukatzeko, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak bere hasieran egiten duen baieztapena merezi duen ospearekin gogoraraziko dugu: "gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute". Nahiko genuke horixe balitz botere publikoen eta pertsona guztien ekintza eta jokabideen bide-erakuslea.

Bartzelona, 2008ko abenduaren 9a